

## **IRIZPEN JURIDIKOA**

**Juan Antonio Cabrero jaunak, Nafarroako energia fotovoltaikoko ekoizleen ordezkari gisa, 2011ko urtarrilaren 1an aurkeztutako kexari buruz Nafarroako Arartekoak eginiko irizpen juridikoa. Kexa Sektore elektrikoaren tarifa-defizita zuzentzeko presako neurriak ezartzen dituen abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legearen aurkakoa da.**

### **I. Aurrekariak.**

#### **1. Energia fotovoltaikoaren arloko inbertsioa Nafarroako Foru Komunitatean.**

Energiaren Batzorde Nazionalaren (CNE) datuen arabera, 2010eko irailean, Espainian instalatutako 4.192 MWetatik 133 MW zeuden Nafarroan erregistratuta. Nafarroak 8.583 ekoizle dauzka, ia guztiz familiak direnak, Espainian energia fotovoltaikoan inbertitu duten 53.167 ekoizleetatik.

Energia fotovoltaikoa ekoizten duten Nafarroako familia horien batez besteko inbertsioa 120.000 eurokoa izan da, 15 kW erosi ahal izateko. Instalazioak izan duen 120.000 euroko prezio horretatik, 24.000 euro (% 20) funts berekiekin ordaindu zituzten, eta 96.000 euro (% 80) 8 eta 15 urte bitarteko epe baterako finantzatu zituzten bankuen eta aurrezki kutxetan.

2010eko abendura arte, instalazio fotovoltaikoek, batez beste, 12.000 euroko urteko diru-sarrerak ematen zituzten. Horiekin, izan ere, familiek hartutako mailegua itzultzen joan eta planten kostu operatiboak ordaintzen zituzten: O&M, aseguruak, konponketak eta abar.

Abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legetik heldu den araubide juridiko eta ekonomiko berriarekin, kalkulatzen da Nafarroako familia ekoizleen diru-sarrerak, batez beste, % 28 txikiagoak izanen direla, eta titular bakoitzak urte bakoitzeko 3.500 eta 4.000 euro gordin gutxiago jasoko dituela. Beren instalazioen Errentagarritasunaren Barne Tasa (TIR) % 7,87 eta % 9,94 bitartekoa zen errege dekretu legearen aurretik, eta orain, berriz, % 4,95 eta %

5,83 bitartekoa izanen da. Horrenbestez, inbertsio horiek ez dira jada errentagarriak izanen.

Egoera horren aurrean, kexa-egileak dio familia ekoizle askok ezin izanen dituztela inbertsioa egiteko hartu zituzten maileguak itzuli eta horrek ondare-arrisku bat eta familian arazo ekonomiko bat eraginen dizkiela, zeinak familia ekoizle batzuek gaur egun bizi duten egoera ekonomiko txarrari gehitu behar baitzaizkio. Adierazten du, gainera, ezarritako murriztapenen ondorioz, familia ekoizleek urtero 35 milioi euro gutxiago izanen dituztela diru-sarreretan.

Halaber, adierazten du Nafarroa, Foru Komunitateko Gobernuak bultzatuta, aitzindaria izan dela teknologia fotovoltaikoaren ezarpenean eta ezarpen hori aplikatzekoa zen legediaren arabera gauzatu dela, halako moduz non Foru Komunitatea eredu bilakatu baita sektore fotovoltaikoan. Orain, ordea, Foru Komunitatea izanen da azaroaren 19ko 1565/2010 Errege Dekretuaren eta abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legearen bidez ezarri diren neurriak gehien pairatuko duena, inbertsio-egile txikien eredu atomizatua dela eta.

## **2. Abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legea, sektore elektrikoaren tarifa-defizita zuzentzeko presako neurriak ezartzen dituena.**

Errege dekretu lege honek eguzki-teknologia fotovoltaikoaren bitartez energia elektrikoa ekoizteko jarduerarekin lotutako neurri garrantzitsuak biltzen ditu. Neurri horiek, hemen zehatz daitekeenari begira, honela laburbil daitezke:

- Instalazio fotovoltaikoen funtzionamendurako ordu baliokideen mugatzea, orokorrean instalazio guztietan eragina izanen duena, eta aldi baterakoa izanen dena; hain zuzen ere, 2011ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitarteko aldirako balio du, Araubide bereziko energia elektrikoaren produkzioaren jarduera arautu zuen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuan ezarritako araubide ekonomikoari bildutakoentzat. Lan egiteko orduak mugatzeak berekin dakar prima parekidea jasotzeko eskubidea dakarren ordainsaria murriztea.

- Maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuaren aldaketa, 36. artikuluko 3. taulan araututako tarifaren indarraldia 25 urtetik 28 urtera luzatuz. Errege dekretuaren arabera, planta fotovoltaikoek aurreikusita zuten beren bizitza erabilgarri guztian ordainsari pizgarriduna jasotzea.

- Banaketa- edo garraio-sareetan sartzeko sari bat ezartzea. Horrela, araubide bereziko ekoizleek sari horiek ordaindu beharko dituzte.

Abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legetik ondoko araubidea sortzen da Nafarroako familia ekoizleentzat:

A) 2011ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitarte, maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuari bildutako instalazioei (instalaturako potentziaren % 97 egiten dute) ordu baliokideak/urtea banaketaren araberako taula bat aplikatuko zaie, Espainiako klima-eremu guztietan. Horrek esan nahi du Nafarroako ekoizleek diru-sarreraren % 30 inguru galduko dutela. Honakoa da ordu baliokideen taula:

<b>Teknologia</b>	<b>Erreferentziako ordu baliokideak/urtea</b>
Instalazio finkoa	1.250
Ardatz bakarraren jarraipena duen instalazioa	1.644
Bi ardatzeko jarraipena duen instalazioa	1.707

Ordu baliokideak/urtea banaketan eginen den mugatzeak eragin desberdina izanen du ekoizleengan, zeren eta eragin handiagoa izanen baitu eguzki-erradiazio handiena duten instalazioetan, bai eta efizienteenetan ere, arrazoia edozein dela ere.

B) 2014ko urtarrilaren 1etik aurrea, ordu baliokideen taula aplikatuko da, klima-eremu bereizten dituen ordu baliokideen taula bat aplikatuko da, aurrekoa bezain murriztailea ez dena; hala eta guztiz ere, ekoizleei eragotziko die

maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuan bermaturiko lansaria jasotzea, hartan inongo mugarik ez baitzegoen.

Teknologia	Erreferentziako ordu baliokideak/urtea				
	Zona I	Zona II	Zona III	Zona IV	Zona V
Instalazio finkoa	1.232	1.362	1.492	1.632	1.753
Ardatz bakarraren jarraipena duen instalazioa	1.602	1.770	1.940	2.122	2.279
Bi ardatzeko jarraipena duen instalazioa	1.664	1.838	2.015	2.204	2.367

**II. Sektore elektrikoaren tarifa-defizita zuzentzeko presako neurriak ezartzen dituen abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legearen azterketa juridiko-konstituzionala.**

Adierazi den bezala, errege dekretu legetik eratorritako araubideak % 28 inguruko murrizketa bat dakarkie Nafarroako familia ekoizleei beren diru-sarreretan, eta titular bakoitzak, urtero, 3.500 eta 4.000 euro gordin bitarte gutxiago jasoko ditu. Beren instalazioen Errentagarritasunaren Barne Tasa (TIR) % 7,87 eta % 9,94 bitartekoa zen errege dekretu legearen aurretik, eta orain, berriz, % 4,95 eta % 5,83 bitartekoa izanen da izanen da. Horrenbestez, ez dira jada errentagarriak izanen.

Horrenbestez, Errege Dekretu Legeak kalte ekonomiko eta ondarezko handia eraginen die Nafarroako familia ekoizleei, zeren eta ezartzen dituen mugek ustategietarako ezarritako errentagarritasun arrazoizkoa mehatxatzen baitu eta, horrenbestez, beraiekin ekartzen baitute familia ekoizle batzuek hondoa jotzeko egiazko aukerak egotea; izan ere, familia horiek beren inbertsioak egin zituzten betiko maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako araubidearen arabera jokatu zuten zutela, haren bitartez ezarri baitzen araubide bereziko energia elektrikoaren produkzio-jarduerarako araubide juridiko eta

ekonomikoa. Beste hitz batzuekin esanda: Nafarroako familia ekoizleek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzekoa izanen zen araubide berria ezagutu edo aurreikusi izan balute, haietatik gehiengo handi batek ez zuen inbertsiorik eginen energia fotovoltaikoan, arrazoizko errentagarritasunik ez izateagatik, hasieran egin beharreko inbertsio handiak direla eta.

Nolanahi ere, hurrengo eskubideak ukitu direla zehaztu beharra dago: a) Maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuari bildutako ekoizleek instalazioaren bizitza erabilgarri guztian zehar, eta ez soilik 28 urtetan, ordainsari pizgarriduna jasotzeko eskubidea. b) Maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuari bilduta dauden eta lanean ari diren instalazio guztiek sortutako produkzio guztiarengatik ordainsari pizgarriduna jasotzeko eskubidea, zeina ez baita mugaturik egonen laneko ordu baliokideen kopuruarengatik.

Aurrekoa suposatuta, eta deskribatutako eragin negatibo eta zuzengabeak saiheste aldera, derrigorrezkoa dirudi errege dekretu legearen edukia aztertzea, baloratzeko ea konstituzioaren kontrakoak izan daitezkeen, bereziki, lehenengo xedapen gehigarriari eta bigarren xedapen iragankorrari dagokienez. Aurrera daiteke bi xedapen horiek zalantza garrantzitsuak eragiten dituztela Konstituzioaren arabekoak izateari dagokionez, ondoren azaltzen diren arrazoiengatik.

### **1. Presa: errege dekretu legeen izateko arrazoia.**

Konstituzioaren 86.1 artikulua ezartzen du ezen premia berezia eta larria izanez gero, gobernuak behin-behineko lege-xedapenak eman ahal izanen dituela, eta horiek dekretu legearen itxura hartuko dutela.

Bada, aztergai dugun errege dekretu legeak aldi baterako araubide bat ezartzen du energia fotovoltaikoko instalazioetarako 2011ko urtarrilaren 1etan hasi eta 2013ko abenduaren 31ra artekoa, eta 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko du araubide juridiko bat. Errege dekretuaren aplikazioa

2014ko urtarrilaren 1era arte (hiru urtez, beraz) geroratzeak guztiz hausten du arau-tresna aparteko eta berezi horretaz baliatzea justifikatzen duen presaren irizpidea. 2014. urtetik aurrerako araubide bat ezartzea lege arrunt bati dagokio, baina ezin da izan, eta ez du izan behar, errege dekretu lege baten xedea, zeina erabili behar baita “aparteko eta presa larriko” egoera baten aurrean, hau da, berehalakotasunez, erreakzionatzeko.

Errege dekretu legearen izatea arrazoitzerakoan, huts egiten du, hasteko, “apartekoa eta presa larrikoa” izatearen baldintza. Arrazoitu den bezala, ez da presakoa, eta, gainera, haren “aparteko premia” ez da berariaz eta argudioen bidez arrazoitzen. Hori dela eta, Konstituzioaren 86.1 artikulua urratzen da, eta akatsak ez dira zuzentzen ez Diputatuen Kongresuak errege dekretu legea baliozkotuz, ez gero lege bihurtuko den lege proiektu baten gisara izapidetuz, ekainaren 9ko 155/2005 epaiak, ekainaren 7ko 189/2005 epaiak eta martxoaren 28ko 68/2008 epaiak, besteak beste, adierazi bezala.

Gogorarazi beharra dago, era berean, Konstituzio Auzitegiak errefusatzen duela gobernuak errege dekretu legeaz egin dezakeen abusuzko erabilera, zeren eta aparteko eta presa larriko egoera bati aurre egiteko neurriek zehatzak eta berehalako eraginkortasuna izatekoak izan behar baitute, eta ezin baitute – ezinbestekoa ez bada– ordenamenduaren egitura aldarazi, eta inolaz ere ezin baitute soilik arau ez-legeztatzaileak jaso (Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 31ko 29/1982 epaia eta ekainaren 9ko 155/2005 epaia).

Errege dekretu lege honek ez ditu ondoko baldintza guztiak betetzen: ez dio aparteko egoera edo larritasunezko egoera bati aurre egiten (are gutxiago haren aplikazioa 2014ko urtarrilaren 1era arte geroratzen badu); haren neurriek ez dute berehalako eraginkortasunik 2014ko urtarrilaren 1ari dagokion atalean; gainera, ordenamendu juridikoa alderazten du, lehendik dauden errege dekretuak alternatzen baititu (azken xedapenetako bosgarrenean aitortzen duen bezala); eta haren neurriak gehiago dagozkio erregelamendu bati, lege bati baino, halako punturaino non, zerbait egin behar izatekotan, egin behar zena baitzen lehengo errege dekretuak errege dekretu baten bidez aldatu.

## **2. Segurtasun juridikoaren eta konfiantza legitimoaren printzipioak urratzea.**

Errege dekretu legeak sektore fotovoltaikoari kentzen dizkio Nazioko Gobernuak bere garaietan inbertsioa erakartzeko ezarri eta bermatu zituen diru-sarreraren itxaropen legitimo batzuk. Ekoizleek iraganean egindako inbertsioak, orduan indarrean zegoen araudiak babestutakoak, garai hartan zeuden kostuen arabera egin zituzten. Bere garaietan finkatu zen ordainsaria orain aldatzearekin –kontuan izanda, haren gainean egin zirela errentagarritasunari buruzko kalkuluak– larriki baldintzatzen ditu gauzatutako proiektuen bideragarritasun ekonomikoa edo arrazoizko errentagarritasuna, eta inbertsio-egile asko aurri-egoeran edo zailtasun ekonomiko larri eta errealean pean jartzen ditu. Ezarritako araubide juridiko eta ekonomikoaren aldaketa horrek suposatzen du segurtasun juridikoaren printzipioa urratzea. Izan ere, printzipio horren arabera, bai botere publikoek bai herritarrek beraien arteko harreman juridikoetan zeri heldu jakin behar dute.

Segurtasun juridikoaren printzipioari buruz, Konstituzio Auzitegiak, urriaren 28ko 182/1997 epaian (11. oinarri juridikoa) honakoa ezarri zuen:

*“printzipio hori, balio absolututzat hartzerik ez badago ere –zeren eta horrek berekin ekarriko bailuke dagoen ordenamendu juridikoa izoztea edo harrizko bilakatzeari, eta hura herritarrek araubide jakin bati euts dakion eskubidea izatea bezala ulertzerik ez badago ere, bai babesten du, ordea, herritarren konfiantza, zerengatik eta herritarrek beren jokabide ekonomikoa indarreko legediaren arabera egokitzen baitute, arrazoiz aurreikusteko modukoak ez diren arau-aldaketan aurrean”.*

Bada, ezin da esan errege dekretu legeak ezarritako araubidea aurreikusteko modukoa denik, zerengatik eta Nazioko Gobernuak, maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuaren bitartez, ordainsarien araubidearen iraunkortasuna bermatu baitzuen, eta iraunkortasun hori, gainera, Energia fotovoltaikoaren ekoizpen-jardueraren ordainsariari buruzko irailaren 26ko 1578/2008 Errege Dekretuaz berretsi baitzuen. Gainera, errege dekretu legeak aitortzen duen bezala, energia fotovoltaikoa sustatzerakoan bere aurreikuspenetan huts egin zuena Industria eta Energia Ministerioa izan zen. Izan ere, Gobernuak energia

fotovoltaikoaren sorreran egin zituen aurreikuspenetan desbideratze bat gertatu da, eta orain, tupustean, gobernu horrek desbideratze hori zuzendu nahi du gobernuak diseinatu, eskaini eta bermatu zuen araubidean (orain desegiten duen segurtasun juridikoko giro bat sortu zuen harekin) bildu ziren ekoizleak zigortuz.

Aurrekorako ez da eragozpena errege dekretu legearen zioen azalpenean erabiltzen den argudioa, “ordainsari nahikoa eta arrazoizkoa” bermatzeari buruzkoa. Segurtasun juridikoa eta herritarren konfiantza legitimoa urratzeaz gainera –lortuta eskubideak kaltetuz ez ezik, arauen garapen eta aplikazio normalak sortzen dituzten itxaropen legitimoak ere kaltetuz, zeinak herritarrak uste baitu juridikoki babestutako interes bat direla, eta, horrenbestez “eskubide subjektibo” bat, are gehiago, aztergai dugun gaian bezala, herritarrek aurrez inbertsio ekonomikoak egiten dituztenean, arauak babestutako beste ekintza material eta juridiko batzuekin batera–, “errentagarritasun” hori ez da ziurtatzen, eta ez da ez nahikoa ez arrazoizkoa, egindako inbertsioei eta haien finantziarioari aurre egin ahal izateko.

Adierazi den bezala, errege dekretu legea % 30eko batez besteko murrizketa bat dakarkie diru-sarreretan Espainiako eguzki-plaken jabeei, eta murrizketa handiagoa da eguzki-ordu gehien dagoen lekuetan; eta horrekin berekin dakar barne-errentagarritasunaren tasa ehuneko 7,87-9,94tik ehuneko 4,95-5,83ra, eta, horren ondorioz, instalazioak, errealitatean, ez dira jada errentagarriak izaten, zeren eta kasuen % 80an inbertsioak maileguekin egin baitziren, eta interesen finantziarioak eta kapitalaren itzulketak errentagarritasun oro xurgatzen baitituzte.

Segurtasun juridikoaren printzipioaren urraketa hori gertatu da, halaber, errege dekretu legea onetsi baita aruaren hartzailerei behar den entzunaldia eman gabe eta haiek ordezkatzeko dituzten elkarteei kontsulta egin gabe. Elkarrekin horiek guztiak, izan ere, bat datoz esaterakoan Estatuko Aldizkari Ofiziala irakurriz jaso dutela araubide ekonomiko berriaren berri.

Aurrekoa baino araubide juridiko-administratibo murriztaileagoa ezartzen duen lege-ekintza batean, nahitaezkoa da ziurtatzea “demokratikoa” izenondo garrantzitsua (Konstituzioko 1.1 artikulua) ematen zaion estatu batek herritarrei



entzunaldia emanen diela, dela zuzenean, dela haiek ordezkatzeko dituzten elkarten bitartez, haiengan eragina duten xedapen administratiboak lantzeko prozeduran, Konstituzioko 105.a) artikulua ezartzen duen bezala; eta xedapen “administratibo” horien artean daude erregelamenduak, legeak eta administrazioan sortzen diren edo hartatik heldu diren gainerako arauak, edo haien eta herritarren arteko harreman juridikoak arautzen dituztenak, eta errege dekretu honek eduki administratibo argia dauka, erregelamenduak aldatzen ditu eta Industria eta Energia Ministeriotik heldu da.

Horrenbestez, ondorio gisa baieztatu daiteke orain eginiko arau-aldaketa ez zela ukitutako ekoizleek arrazoiz aurreikusteko modukoa eta segurtasun juridikoaren eta konfiantza legitimoaren printzipioak urratzen dituela.

### **3. Eskubideak murrizten dituzten arauak atzerako eragingarritasunik ez izatearen printzipioa.**

Arauen atzerako eragingarritasunari buruz, Konstituzio Auzitegiak, urriaren 28ko 182/1997 epaian (11. oinarri juridikoa) honakoa doktrina ezarri zuen:

*“Azkenik, epai kasuistiko hau orientatzeko irizpide gisa, auzitegi honen doktrinaren arabera garrantzitsua da bereiztea egiazko edo goren mailako atzerako eragingarritasuna eta atzerako eragingarritasun ez-berezkoa edo maila ertainekoa. Lehenengo kasuan –zeina gertatzen baita xedapenak bere eraginak lotu nahi dizkienean legea bera baino lehenago gertaturiko eragin edo izatezko egoerei, jada gauzatutakoei–, interes orokorreko exigentzia kualifikatu batzuek baizik ezin lukete ezarri segurtasun juridikoaren printzipioaren sakrifizioa. Maila ertaineko edo ez-berezko atzerako eragingarritasunaren kasuan –zeina gertatzen baita legeak eragina duenean oraindik ere amaitu gabeko egoera juridiko aktualetan–, xedapenaren zilegitasuna edo ez-zilegitasuna lotuta egonen da ondasunen ponderazio batekin; ponderazio hori kasuz kasu egingen da eta kontuan izanzen du, alde batetik, segurtasun juridikoa, eta bestetik tributuen arloko ordenamendu juridikoaren aldaketa bat ekar ditzaketen inperatibo batzuk, bai eta kasu honetan biltzen diren inguruabar zehatzak ere; hau da, neurriaren xedea eta hura aurreikusteko modukoa izateari lotutako inguruabarrak, haren garrantzi kuantitatiboa eta antzeko beste faktore batzuk (Konstituzio Auzitegiaren 126/1987*

*epaia, 11., 12. eta 13. oinarri juridikoak; Konstituzio Auzitegiaren 197/1992 epaia, 4. oinarri juridikoa; eta Konstituzio Auzitegiaren 173/1996 epaia, 3. oinarri juridikoa).”*

Oraingo kasuan, atzerako eragingarritasun ez-berezko edo maila ertaineko baten aurrean gaude. Konstituzio Auzitegiaren transkribatu berri dugun doktrinaren arabera, haren konstituzionaltasuna ala ez-konstituzionaltasuna erabakitzeke, errege dekretu legeak bere aurreko araubide juridiko eta ekonomikoari ezarritako murriztapenak aztertu behar dira, honakoen argitara, hain zuzen ere: segurtasun juridikoa, araubide hori aldarazteko inperatiboak, xedea, aurreikusteko modukoa izatea ala ez, garrantzi kuantitatiboa eta antzeko beste faktore batzuk.

Arestian arrazoitu den bezala, errege dekretu legeak ezarritako murriztapenek nabarmen urratzen dituzte segurtasun juridikoaren eta konfiantza legitimoaren printzipioak.

Ez dago presako arrazoirik, erabilitako arau-tresnaz baliatzea justifikatzen duenik.

Ezin da arrazoiz baieztatu errege dekretu legeak ezarritako araubidea 2007an, 2008an, 2009an eta are 2010ean ere aurreikusteko modukoa zela.

Araubide berriaren azpian dagoen interes orokorra, dirudienez, hauxe da: elektrizitatearen kostua gutxitzea azken kontsumitzailearen onurarako. Alabaina, araubide berriak ez dio konponbiderik ematen tarifaren defizitari eta ez du saihestuko etorkizunean argindarraren prezioak gora egitea. Tarifaren defizita energia berriztagarriak ezarri aurretik ere existitzen zen, zeren eta Espainiako eredu energetikoa energia fosil garestietan oinarritzen baita, kanpokoaren mendetasun handi batekin; hori dela eta, hidrokarburoen prezioaren bilakaerak eta ikatzerako laguntzek determinatuko dituzte tarifaren defizita eta argindarraren prezioaren igoerak. Eredu energetikoa aldatzen ez den bitartean, tarifaren defizitak gora egiten jarraituko du, eta kontsumitzaileei ordainaraziko zaie argindarraren prezioan.

Ekoizleen artean desberdintasunak edo bazterketa eragiten du, ondoren argudiatuko den bezala.

Neurrian proportzio eza ageri da, eta hura ezin da berez justifikatu. Nahikoa da orain arte indarrean egon den araubidea, 2014tik aurrera ezarriko den araubidea eta 2011-2013 urteetarako ezartzen den araubide iragankor drakoniarra eta haien barneko errentagarritasun tasak alderatu, ikusteko neurria proportziorik gabekoa dela etapa bakoitzean aurrekoarekin alderatuz gero, eta hori, gainera, lurralde-zonifikazioek larriagotzen dutela.

Horrenbestez, baieztatu daiteke kasu honetan, errege dekretu legeak ezarritako atzerako eragingarritasun ez-berezkoa konstituzioaren aurkakoa dela.

#### **4. Legearen aurreko berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioak urratzea.**

Sektore elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 28. artikulua honakoa ezarri zuen: “Energia elektrikoaren honelako ekoizpen mota betarako baimendutako instalazioek tratu berezitua izanen dute, beren baldintza partikularren arabera, baina haien artean ez da inongo bazterketarik edo pribilegiarik egon”. Horrenbestez, legeak ezartzen du ezin izanen dela teknologien artean bazterketarik egin.

Bada, errege dekretu legeak negatiboki baztertzen du teknologia fotovoltaikoa araubide bereziko gainerako teknologia energetikoen aldean, pizgarriak ordaintzeko epearen iraupenean muga bat ezartzen baitu, bestelako teknologien kasuan ezartzen ez dena, eta bestelako teknologia horiek araupetze ez hain kaltegarria baitute, orduen mugaketari dagokionez.

Bestalde, errege dekretu legeak lau eguzki-eremu klimatiko ezartzen ditu, muga batzuk ezartzeko energia sarean sartzeari dagokionez eta, horrenbestez, estatuaren diru-laguntzak gutxitzeko. Eta nabarmena dirudi lau eremu horiek ezartzeak –arauetan eraikuntzaren alorrerako daude eremu horiek ezarrita, eta ez energia fotovoltaikoaren produkzioari begira– eragin desberdinak izanen ditu instalazioetan. Eraginik handiena eguzki-erradiazio handiena dagoen tokietan dauden instalazioetan izanen da, bai eta instalazio efizienteenetan ere, edozein

dela ere horretarako arrazoia. Azken batean, errege dekretu legeak irizpide baztertzaille bat ezartzen du, eguzkiaren baliabidea hobekien aprobetxatzen dutenentzat. Horretarako, berriz diogu, eraikuntzaren arlorako eginiko lurralde-banaketa batez baliatzen da, nahiz eta banaketa hori eguzkiaren aprobetxamendu energetikoarekin zer ikusirik ez izan, errealitate eta xede desberdinak baitira kasu batean eta bestean. Horrenbestez, xedearen desbideratze bat gertatzen da, zeren eta eraikuntzarako balio duenak ez baitu energia fotovoltaikorako balio.

Horrekin, ekoizleak desberdin tratatzen dira, arrazoitzeko moduko justifikazio objektibo eta teknikorik gabe (hori ez baita errege dekretu legean zehazten), lurraldean kokatuta dauden tokiaren arabera, eta horrekin Konstituzioko 13. 138. eta 139. artikulua urratzen dira. Lehenengoak debekatzen du herritarrak legearen aurrean desberdinak izatea; bigarrenak oreka ekonomiko egoki eta zuzena bilatzen du Espainiako lurraldeko zati desberdinen artean. Hain zuzen ere, zonifikazio fotovoltaikoak berdintasuna hausten du, justifikazio formal eta substantiborik gabe; eta hirugarrenak ziurtatzen du espainiar guztiek “eskubide eta betebeharrak izatea estatuko lurralde guztietan”, eta hain zuzen ere hori arrazoi gehiagoz exijitu behar zaio errege dekretu lege bati –izan ere, desberdintasunak sartzen ditu lehenago halakorik ez zegoen tokian, hain zuzen ere jarduera berean aritzen diren Espainiako ekoizleen artean.

## **5. Babes judizial eragingarrirako eskubidea.**

Araugintza-tresna apartekoa erabili da, lege indarrarekin, araubide juridiko bat ezartzeko hain zuzen ere lehenago errege dekretuen bitartez –hau da, erregelamendu balioa duten arauen bitartez– araututa zegoen arlo batean. Eta zalantzarik gabe, errege dekretu legearen eduki osoa erregelamendu mailako arau baten bitartez arau zitekeen, lege mailako arau betera jotzeko premiak gabe. Errege dekretu legeak berak xedatzen du erregelamendu-arauetan eragina duen edukiaren zatia erregelamendu-mailako beste arau batzuen bidez aldatu ahalko duela nazioko gobernuak (azken xedapenetako bosgarrena).

Horrenbestez, aparteko arau-tresna horren hautaketak –lege-indarrarekin eta – mailarekin sartzen da ordenamendu juridikoan– eragin bat dauka: ukitutako ekoizleei eragozteko hura epaitegi arruntetan aurkatu ahal izatea. Horrek, berez, babesgabetasun-egoera bat eragiten die, zeren eta, gehienez ere, errege dekretu legearen aplikazio ekintza zehatz batzuen kariatara, epailearen aurrean planteatu ahalko baitute ekintza horiekin lotutako legearen konstituzio-kontrakotasunaren auzia aurkez dezan. Alabaina, hori egitea da aitortzea ezin izanen dituztela ekintza horiek zuzenean aurkatu epaitegietan, nahiz eta haiek izan arauaren hartzaile nagusiak eta beren eskubideak kaltetuen sentitu dituztenak.

Babes judizial eragingarrirako eskubideak, Konstituzioko 24. artikulua bermatzen duenak, erreklamatzeko du herritarrak aukera eduki behar duela jurisdikzio arruntera jo ahal izateko bere eskubide eta interes legitimoak babesteko. Hala eta guztiz ere, errege dekretu legeak, bere “legezko” araupetzearekin, epaile arrunt batengana jotzeko aukera oro ixten du, nahiz eta orain arteko erregelamendu bidezko araupetzeak horretarako bidea ematen zuen.

## **6. Botere publikoen arbitrariotasunaren debekuaren printzipioaren urraketa.**

Printzipio konstituzional hori, Konstituzioko 9.3 artikuluan jasotakoa, bi arrazoiregatik urratzen da:

A) Errege dekretu legearen egiazko xedea ez da hainbeste sektore elektriko tarifen defizita zuzentzea, baizik eta orain arte araubide bereziko ekoizleei ematen zitzaizkien “ordainsari” edo “diru-laguntzak” gutxitzea, horrek errentagarritasunari begira izanen dituen murriztapenekin. Erregulazio berriak sortzen dituen eraginei begiratze hutsarekin egiazta daiteke hori.

Hau da, lehenbizi, gobernuak, 2007an eta 2008an, energia fotovoltaikoa sustatzen du, eta hura aurkeztzen du esanez energia berriztagarria dela, ingurumenaren aldetik desiragarria eta abar eta abar; haren produkzioa diruz laguntzen du eta araubide juridiko bat ezartzen du hurrengo urteetarako

arrazoizko segurtasun bat bermatzeko. Izan ere, urte horietan, ekoizleek errendimendu batzuk atera behar dituzte eta horiekin egin dituzten inbertsioak finantzatu ahaliko dituzte. Zenbait urte geroago, ordea, 2010. urtearen amaieran, errege dekretu lege baten bitartez arau horiek aldatu eta inongo justifikazio teknikorik gabe (arrazoi guztiz ekonomikoengatik eta “energia iturri horrek sor dezakeen energiaren aurreikuspen batzuen arabera), ezarritako araubidearen funtsa aldatu eta “araubide ekonomiko primadunerako eskubidea duten” funtzionamendu-orduak artifiziaiki mugatzen ditu, lehenbizi 2011-2013 urteetarako eta gero aurreragorako.

Hasieran baliozkoa eta desiragarria zena, orain mugatu beharrekoa da; lehen guztientzat ona zena eta guztiei egiteko gonbitea egiten zitzaiona, orain moztu eta murriztu beharrekoa da. Eta aldaketa energia-iturri hori sortzeko aurreikuspenetan gertatutako akats edo desbideratze bati zor zaio, eta akats hori errege dekretu legea onetsi duen berak egin zuen: Gobernua.

Gobernuaren jokabide juridiko-administratibo horretan arbitrariotasuna nabarmena da: lehen bai, orain ez; lehen sartu, orain atera; edo lehenengo hiru urteetan gutxiago ekoitzi, eta gero gehixeago.

B) Arbitrariotasuna nabarmena da, era berean, errege dekretu legearen eraginean ageri den proportzio ezean.

Lehenbizi, ekoizleek bi errege dekreturen bitartez (2007 eta 2008) ezarritako ordu-araubide bat zeukaten; orain, errege dekretu legeak beste araubide batzuk ezartzen dizkie, urte bakoitzeko erreferentziako ordu baliokideen kopuru batean oinarritutakoak; lehenengoa, 2011ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartekoa, zonifikaziorik gabe eta orduen kopuru txikiagi batekin (banaketa-gastua gutxitzeko xedez); bigarrena, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa, batez beste ordu kopuru handiago batekin eta zonifikazio baten arabera.

Horrenbestez, proportzio ez nabarmena dago energia fotovoltaikoaren ekoizleari ematen zaion tratamendu juridikoan, arauen indarraldiaren arabera. Errege dekretu legearen aurreko araubidearen aurrean, hiru urtez araubide baxuegia ezartzen da, eta hiru urteren buruan handitu egiten da, baina betiere 2010eko abenduaren 24a baino lehenagoko batez bestekoaren azpitik.

Adierazi dugun bezala eta berriz ere adierazi behar den bezala, baliokidetasuneko orduak eta errentagarritasunak batetik bestera aldatzen dira neurriaren proportzio ezak eragindako gorabehera nabarmen eta justifikatu gabekoekin: ekoizleen diru-sarrerek % 30 eginen dute behera batez beste, eta hori nabarmenagoa izanen da eguzki-ordu gehiago duten eremuetan.

### **III. Ondorioa.**

Irizpen honetan arrazoitutako guztia batera bilduz, ondorio gisa baieztatu dezakegu behar adina argudio juridiko-konstituzional badagoela Konstituzio Auzitegian konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsio bat aurkezteko Sektore elektrikoaren tarifa-defizita zuzentzeko presako neurriak ezartzen dituen abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legeko lehen xedapen gehigarriaren aurka eta bigarren xedapen iragankorraren aurka.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 25ean.

Nafarroako Arartekoa

Francisco Javier Enériz Olaechea